



Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000010-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena,
ERABAKITZEN DUT:

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	90.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		90.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	90.000,00
GUZTIRA	90.000,00	

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 2. Artikuluaren arabera, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.

Zarautzen, 2020ko ekainaren 25ean
Alkatea